

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI SOLASALDIA

'Volver a casa' liburuaz, Biterin

Literatur solasaldia, gaztelaniaz, liburutegian izango da, gaur iluntzeko 19:30etan hasita, eta Yaa Gyasi idazlearen *Volver a casa* liburuaz ariko dira bertan. Amaia Garciak zuzenduko du saioa. ||

■ HERNANI ERREMONTEA

Master Torneoa bihar hasiko da Galarretan

Bederatzigarren edizioa da eta bost partidu jokatuko dira guztira. Finala hilaren 26an jokatuko da eta partaideak Azpiroz, Endika, Ezkurra II, Barrenetxea IV hernaniarra, Uterga eta Urriza dira.

ERREMONTEKO Master Torneoa bihar hasiko da jokatzen Galarretan. Banakako txapelketa izaten da eta bederatzigarren edizioa beteko du aurren. 2019koan sei erremonistetek hartuko dute parte, inoiz baino gehiagok, eta bost partidu jokatuko dira guztira. Eskailera formatua izango du.

Bihar, lehenengo partidua

Biharko lehenengo partiduan Azpiroz eta Endika ariko dira elkarren aurka. Bigarren partiduan, larunbatean, Ezkurra II eta Barrenetxea IV lehiatuko dira bata bestearen kontra. Lehenengo partiduan irabazleak Urriza izango du aurrez aurre urtarrilaren 17an eta bigarren partiduko irabazleak Uterga hartuko du urtarrilaren 19an. Finala, urtarrilaren 26an jokatuko da finalerdietako irabazleen artean.

Koteto Ezkurra haundiak irabazi zituen lehendabiziko bi edizioak 2011an eta 2012an.



Master Torneoa atzo aurkeztu zen Galarretan sei partehartzalaeekin eta UTS Komunikazioaren babesean.

Ondoren, Urrizaren bi garaipen etorri ziren (2013 eta 2014), Utergak hartu zuen erreleboa 2015ean eta 2016an beste bi garaipenekin eta azken bi urteetan berriz ere Urrizak menderatu ditu aurkariak.

Urriza txapeldunak aurkezpenean azaldu zuen banakako txapelketetan motibazio berezia duela eta exijentzi maila, aurkari berriak eta erronka haundia izaten direla. Endika Barrenetxearen hitzetan «gaz-

teak indartsu datoz; bai Ezkurra II eta bai Azpiroz, eta datorren urtean ea gazte gehiago dauden».

Aurten, UTS-Komunikazioa da babeslea eta bere izena du txapelketak. ||

■ HERNANI ZINEA

Telmo Esnalen 'Dantza' ikusgai, Biterin

Ostiralean estreinatuko da *Hernanin*, 22:30etan, pelikula saritu eta arrakastatsua. Asteburuan zehar eta astelehenean ere emanaldiak egongo dira egun horietako betiko orduetan.

TELMO ESNAL zuzendari zara-uztarraren *Dantza* pelikula arrakastatsua ostiralean etorriko da Biteri kultur etxera, 22:30etan. Orain dela lau aste estreinatuko zen eta herriz herri dabil estreinaldietan. Hernaniko kultur etxera etzi etorriko da eta asteburuan eta astelehenean ere eskainiko da betiko orduetan. Hau da larun-

batean, 19:30 eta 22:30etan; igandean, 19:30etan; eta astelehenean, 16:30etan.

Irailen estreinatu zuten, Donostiako Zinemaldiaren sail ofizialaren barruan, eta Telmo Esnalen, Koldobika Jauregiren eta Juan Antonio Urbeltzen arteko elkarlanaren emaitza da pelikula.

Pelikulan 250 dantzari

baino gehiagok hartu dute parte. Greenpeace-n *Lurra Saria* ere irabazi du filmak eta kritika oso onak jaso ditu.

Telmo Esnalek dio istorio nahiko xumea dela. «Herri laborari baten istorioa, fruituaren inguruan; lanak fruituak dakar, fruituak festa... Horren gainekoa da, nahiko sinplea. Egin dudana da

dantzak kokatu eta erabaki zer dantzarekin kontatu neza-keen istorioa; erabaki zein lekutan jarri dantza bakoitza, nire ildo narratiboari laguntzeko. Ez dauka hitzik, beraz, argi nuen bisualki interesgarria eta erakargarria behar zuela izan. Pelikula dantzatu bat da, dantzaz dantza istorioa kontatuko duena». ||

■ ASTIGARRAGA EUSKERA

Gurasolagun, aurreneko zita

Euskeraz dakiten gurasoek eta ikasten ari direnek elkarteko urteko aurreneko aukera izango dute bihar, Gurasolagun taillerrean, arratsaldeko 16:45etatik 18:00ak bitarte, Herri Eskolako jangela txikian. Izena emateko: 943 335 064 (kultur etxea) edo iker-g@aek.eus. Haurrek ere aukera daukate bertan egoteko, Xaguxar aisialdi taldeko kideekin batera. ||

■ HERNANI KAFE TERTULIA

Urteko lehenengo saioa, gaur Gunean

Euskera praktikatzeko beste aukera bat eskaintzen du Udal Euskaltegiak, Kafe Tertulia egitasmoaren bosgarren edizioarekin. Urteko lehenengo saioa da gaur eta asteazkeneko egiten dira, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, Gunea garagardotegian. ||

■ GOIZUETA PEDIATRIA

Zerbitzua bueltan, gaurtik aurrera

Azken hilabeteetako kexen ostean, goizuetar eta aranoarrek Goizuetan jasoko dute pediatria zerbitzua gaurtik, Goizuetako Udalak bando baten bidez jakinarazi duen moduan. Orain arte, Leitzara joan behar zuten. ||

■ HERNANI ESKOLAK

Izenemateko epea irekita dago

Emakumeentzako Jabetze Eskolaren aurtengo eskaintza berria plazaratu da. Izen ematea astelehenean hasi zen eta apuntatu daiteke urtarrilaren 18an hasiko diren ikastaroetan. ||

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

ATZA
Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzaberna@gmail.com

Hernaniko haurreskola
Izen-emate epea zabalik
URTARRILAREN 7tik 11ra
Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

PEÑA
sulabe
Okindegia - Janaridenda
Eguneroko zure beharrei erantzuteko,
Kale Nagusian gaude.
Kale nagusia, 19 - Tel: 943 55 23 98

TAXIAK: 943 550093 **UDALTAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA **GAUR** Zerueta lainotsu egongo da eta euria egingo du, bereziki ipar partean. Iparaldeko haizea bizi ibiliko da eta zenbait momentutan traba egingo du. Temperaturak behera egingo du. **Min.5° / Max.9°** **BIHAR** Biharko hotza dator eta eluraren maila nahikoa baxua izango bada ere, espero den prezipitazio kantitatea urria izango da. **Min.2° / Max.6°** (euskaime)

HERNANI ARGAZKI ERAKUSKETA



Enbor baten bi adar begi ederki irudikatzen dira Aina Garcia ateratako argazkietako batean.

«Erakusketara naturarekin lotutako 50 argazki ekarri ditut»

Ainara Garcia argazkilari hernaniarraren lanaren zati bat dago ikusgai Biteriko erakusketa gelan atzotik eta hurrengo bi asteetan».

AINARA Garcia argazkilari hernaniarraren Naturari begi-daradak argazki erakusketaren irekiera ekitaldia egin zen atzo Biteriko erakusketa gelan. Bi asteetan egongo dira bertan ikusgai bere «50 argazki inguru», Ainarak atzo bertan zioen bezala. «Naturarekin lotutako argazkiak dira, nahiz eta azke-

naldian gehiago ari naizen erretratoa lantzen».

Eskarmentu haundiko argazkilaria da. «90garren hamarkadan hasi nintzen eta garai bateko argazkiak ekarri ditut batipat, lehenengo garai-koak. Orden bat mantendu dut, urtaroen arabera, negutik udararaino». Bakarrik egiten

duen bere lehenengo erakusketa da. «Orain arte kolaborazioak egin ditut, baina inoiz ez bakarrik erakusketa bat. Prestatzen lagundu didate eta argazkiak aukeratzea ez da erraza izan. Haurra izan nuenetik natura eta erretratoa gehiago lantzen ditut biak uztartuz». ||

HERNANI-EREÑOTZU ATLETISMOA



Anartz Artola (CD Hernani) erdian, bigarren eta hirugarren sailkatuekin.

Anartz Artola Zornotzako Nazioarteko krosetan garaile

Anartz Artolaren bolada onak ez du etenik. Ereñotzuko lasterkariak Irungo eta Bolonburu krosak irabazi zituen azaroan eta abenduan. Hernaniko San Silbestrean ere azkarrena izan zen eta oraingoz garaipenik garrantzitsuena Zornotzako Nazioarteko krosetan lortu zuen, 20 urtez azpikoetan, pasa den igandean. 65garren edizioan 6.700 metroak 22 minutu eta 29 segundotan burutu zituen hernaniarrak. ||

HERNANI-GOIZUETA-ASTIGARRAGA EPAB

EPABek mendi martxa antolatu du ekainerako

Iheslarien ibilbideen hirugarren mendi martxa izango da Mendibe-Cizetik Otsagabiara.

EUSKAL Pirinioak Askatasun Bideak elkarteak ekainaren 29 eta 30ean mendi martxa omenaldi berri bat antolatu du aurreko bi ekitaldien arrakastaren haritik tiraka. Ekitaldiari buruzko informazioaren orria eta izenematearen orria eskatu daitezke dagoeneko basquefreedom-trailsww2@gmail.com helbidean eta EPAB ezagutzeko www.bpftaww2.com web gunea erabili daiteke.

Aurtengo askatasun bidea Burdintxuruketa lepotik (Mendibe-Cize, Nafarroa Beherean) Otsagabiara izango da. Ibiltari bezala edo ez, mendi martxa historiko omenaldietan parte

hartu daiteke, hori bai EPABarekin erregistratu behar da lehenik.

Orain arte iheslarien bi ibilbide arrakastatsu antolatu dituzte

2016ko abuztuan, Donostia Kulturaren Hiriburu Europarraren baitan, EPAB-ek bi martxa antolatu zituen: gaueko eta eguneko Pirinioetako bigarren mundu-gerrako iheslarien Comete ibilbidean zehar.

Pasa den ekainean, elkar-teak, arrakastarekin ere, bigarren mundu-gerrako beste ihes-ibilbide bat, Nafarroako Pirinioetan zehar, antolatu zuen. ||

HERNANI TXANTXANGORRI



San Silbestreko tiraketako saridunak.

Aitor Aristorena, onena tiraketan

Aitor Aristorena izan zen onena Txantxangorrik antolatutako San Silbestre tiraketan. Bigarren Manuel Elorza eta hirugarren Juan Manuel Zapiain sailkatu ziren, 17 partehartzaile artean, Arkalen. ||

HERNANI ERROTZEN

DVDa Kronikako bulegoan jaso daiteke

Ezagutu Hernani lehiaketa antolatu zuen urte bukaeran Hernani Errotzenek, eta parte hartu zuten artean DVDa oparitu zuen. Oraindik jendea falta da jasotzeko, eta San Sebastian bezperara arte, Kronikako bulegoan jaso dezakete. ||

HERNANI SAN JOAN KONPARTSA

7.181 izan da zenbaki saritua

San Joan Konpartsaren errifa saritua 7.181 zenbakia izan da. Abenduaren 21eko ONCeren zozketan atera zen zenbakia da tokatu dena. Hilabeteko epea dago saria jasotzeko Talasoterapia eta bi lagunentzako bazkaria. ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiojogia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)